Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

1. SARRERA.

Aipatutako espedienteari dagokionez, memoria baloratua DAGO, LAUROGEITA BEDERATZI MILA BEREDETZIEHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA ZORTZI ZENTIMOKOA (89.918,98 euro, BEZaren % 21 barne).

Hauek dira zenbateko banakatuak, zehazki:

- Definitutako lanak gauzatzea: 74.313,21 € gehi 15.605,77 € (BEZaren % 21i dagokiona)

Dokumentuak bete egiten du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. eta 236. artikuluetan xedatutakoa, dokumentuaren zuinketa behar bezala egiteari eta lizitaziorako oinarrizko dokumentua lortzeari dagokienez. Berorren edukiak bete egiten ditu aplikatu beharreko 233. artikuluko apartatuak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 235. artikuluaren arabera, onetsitzat jo daiteke aplikatu beharreko araudiaren ikuspuntutik.

Era berean, egiaztatu da aintzakotzat hartu direla dokumentuari aplikatu beharreko legezko edo erregelamenduzko xedapen orokorrak eta araudi teknikoa.

Honako hau da zenbatespena, lizitazioaren balioaren kostuak justifikatzeari eta genero-bereizketari buruzko 100.2. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, proiektuaren prezioen justifikazioaren xehetasunen eta apartatu bakoitzean hainbanatutako eta justifikatu beharreko unitateen arabera:

AURREKONTU BANAKATUA			
ZUZENEKO KOSTUAK	GASTUAK: Eskulana		18.734,42 €
	GASTUAK: Materialak		31.224,04 €
	GASTUAK: Justifikatu beharreko honenbesteko unitateak		6.244,81 €
	GASTUAK: Makinak, bitarteko osagarriak		6.244,81 €
ZEHARKAKO KOSTUAK, GASTU OROKORRAK		% 13	8.118,25 €
MOZKIN INDUSTRIALA		% 6	3.746,88 €
BEZa		% 21	15.605,77 €
URTEKO LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA			**89.918,98 €**

Bestalde, ezin daiteke kontratu honetan eta obra-unitateetan *a priori* genero-bereizketarik ezarri; halaber, ez da azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100. artikuluarekin zerikusia duen inolako neurririk ezarri.

2. SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Lizitatu beharreko obrak definitzen dituen dokumentuan segurtasunari eta osasunari buruzko azterlan bat dago, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak, eta gaiari buruz aplikatu behar diren gainerako arauek ezartzen dutenarekin bat etorriz.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

Segurtasun- eta osasun-arloko koordinazioa RCS ARQUITECTURA Y PREVENCIÓN SLP enpresak (IFK: U-74-267824) egingo du, eta arduradunak Elena Díaz andrea eta Asunción Álvarez andrea izango dira.

3. KALITATE-KONTROLA

Dokumentuak kalitate-kontroleko plan bat dauka, urriaren 28ko 209/2014 Dekretuak, Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duenak, adierazitakoarekin bat etorriz.

4. HONDAKINEN KUDEAKETA ETA INGURUMENAREN ZAINTZA

Dokumentu honetan, obretan aplikatu beharreko Hondakinen Kudeaketa Plana behar bezala betetzeko zenbateko bat ageri da. Plan hori obren adjudikazioduna den enpresak idatzi beharko du, betiere ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak, adierazitakoa betez.

5. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA, KONTRATATZEKO GAITASUNA FROGATZEA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 77. artikuluan ezarritakoaren arabera eska daitekeen kontratista-sailkapenarekin lotuta, obren zenbatekoa kontuan hartuta, ez da nahitaezkoa sailkapenik eskatzea.

Eskatutako gaitasun teknikoko baldintza hau izango da: gutxienez obra zibileko jarduketei lotutako obra bat egin izana azken bost urteotan, gutxienez 74.313,21 eurokoa, edo zenbateko horren besteko hiru obra.

Ekonomia- eta finantza-kaudimenari dagokionez, honako aukera hauetako baten bidez egiaztatuko da:

- Urteko negozio-bolumena egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokiona (eratze-daten arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren dataren arabera); bolumen horrek kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako edo handiagoa izan beharko du.

Kontratistaren sailkapenaren alternatiba gisa, honako hauen kaudimen teknikoa egiaztatu behar da:

- TALDEA: G BIDEAK ETA PISTAK
  AZPITALDEA: 6 BIDEEN OBRAK, KUALIFIKAZIO BEREZIRIK GABE.
  KATEGORIA: 1.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 88.2. artikuluak aipatutakoarekin bat etorriz, 500.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obren eta sortu berri diren enpresen kasuan, kaudimen teknikoa lege horretako 88.1.b artikuluan jasotakoaren arabera justifikatuko da: adierazpen baten bitartez, langile teknikoak eta baliabide teknikoak aipatuz (kamioia; hiru ofizial igeltsero; bitarteko osagarriak —hala nola alokatutako minikargagailuak tresnekin eta 500 kg-ko dunper-kamioia— dauzkaten lau langile), enpresan integratuta egon zein ez, obrak

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

egiteko dituenak, kasuan kasuko ziurtagiriekin batera, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen diotenean.

6. LANAK EGITEKO EPEA ETA LUZAPENAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, ez da luzapenik aurreikusten, salbu eta ezinbestekoren batengatik, obrak adjudikatzen zaizkion kontratistari egotzi ezin zaiona, ezin badira lanak oinarrizko dokumentuan adierazitako epean —hau da, 12 ASTETAN— amaitu.

7. ORDAINKETA

Egindako lanak ordaintzeko, dagokion hileko faktura aurkeztuko da aurretik eta dagokion obrako ziurtagiria onetsiko da, betiere bat etorriz lizitazio honetarako ezarritako prezioekin.

8. BERME-EPEA

Berme-epea URTEBETEKOA (1) izango da gutxienez (edo lizitatzaileak eskainitakoa, handiagoa izatekotan), eta administrazio-baldintzen pleguan ezarritakoaren arabera kontabilizatuko da, Getxoko Udalari obrak edo instalazioak entregatu eta horrek hartzen dituen unetik zenbatzen hasita.

9. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Baremo hau proposatzen da.

AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (GEHIENEZ 49 PUNTU).
Hauek jasoko dira bertan:

- MEMORIA TEKNIKOA (GEHIENEZ 49 PUNTU). Obraren eta jarduketa-eremuaren azterketa-gradua adierazi behar da. Zailtasunik esanguratsuenak eta beraiek konpontzeko bideak adieraziko dira.
  Puntu honetan, proiektua osatzen duten lanen ezaugarririk esanguratsuenak azalduko dira: jarduketa-eremuaren ezaugarriak, lanak egitearen ondorioz egon daitezkeen eraginak eta abar.
  Obraren edukia "memoria teknikoa" deritzon adjudikazio-irizpidea baloratzeko behar dena izango da, puntu hauetan banatzen dena:

  1) Obra aztertzea, proiektuaren jarduketa-eremua ezagutzea (GEHIENEZ 29 PUNTU): eraikuntzaren memoria teknikoa, zeinetan enpresa lizitatzaileek jarduketa-eremuaren eta proiektuaren ezagutza azaltzen eta frogatzen baitute. Obren garapenari buruz, eraginei buruz eta abar beharrezko den guztia sartuko da apartatu honetan.
  2) Lanen plangintza (GEHIENEZ 12 PUNTU): apartatu honetan sartuko dira justifikazio bat, erreferentzia gisa, lizitazioko oinarrizko epearekin bat; obrarako eskuragarri dauden bitartekoak; obra egiten parte hartuko duen pertsona-taldea; obrako faseetako bakoitzaren epe partzialetan izan ditzakeen eraginen kontrola eta balioespena; etekinen azterketa; kronogramak eta abar.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

3) Obrak egitean eraginak murrizteko hartuko diren neurriak (GEHIENEZ 8 PUNTU): auzokideei, birjartzen ari diren tarteetatik zirkulatzen duten ibilgailuei, garraio publikoko lineei eta abarri kalteak minimizatzeko kontuan hartuko diren neurriak deskribatuko dira.

AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (GEHIENEZ 51 PUNTU). Hauek jasoko dira bertan:

- ESKAINTZA EKONOMIKOA (GEHIENEZ 39 PUNTU).
  Eskaintza ekonomikoak honako formula honekin baloratzea proposatzen da:

  – Gehieneko puntuazioa, HOGEITA HEMERETZI, baliozko proposamen gisa onartzen den eskaintzarik onenari emango zaio.

  – Gainerako eskaintzetan, honako formula hau erabiliko da:

  $$\text{Oinarrizko puntuazioa} = \frac{\text{Gehieneko puntuak x Eskaintza ekonomikorik onena}}{\text{Aztertu beharreko eskaintza}}$$

  Eskaintzek ezohiko edo neurriz kanpoko baliorik duten erabakitzeko, aintzat hartuko da azaroaren 8ko 9/2017 Legean (149. artikuluan) eta Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorrean (85. artikuluan) jasotakoa.

  – Gutxieneko puntuazioa, ZERO, lizitazio-oinarriaren berdina den baliozko proposamen gisa onartutako eskaintzari emango zaio.

  – Lizitazio-oinarria gainditzen duten eskaintzak lizitazio-prozesutik kanporatuko dira.

- BERMEAREN EPEA GEHITZEA (GEHIENEZ 3,00 PUNTU).
  Eskainitako berme-epeari lotuta eskaintzak baloratzeko orduan, pleguan ezarritakoaren gainean eskainitako urtebete osagarri bakoitzeko PUNTU BAT (1) emango da, obrak osatzen dituzten unitate guztietan.

- EGIKARITZE-EPEA MURRIZTEA (GEHIENEZ 5,00 PUNTU).
  Egikaritze-epeari lotutako eskaintzen balorazioa honela egingo da: BI PUNTU ETA ERDI (2,50) egikaritze-epea murrizten den aste bakoitzeko.

- BIDE-ZORUA SENDOTZEKO LANAK EGIKARITZEAN BIRZIKLATUTAKO MATERIALA ERABILTZEKO KONPROMISOA (GEHIENEZ 4,00 PUNTU).
  Eskainitako konpromisoari dagozkion eskaintzak honela baloratuko dira: BI (2,00) PUNTU bide-zorua sendotzeko lanetan birziklatutako materiala erabiltzeko egikaritze-baldintza berezietan ezarritako % 40az gain gehitzen den % 5 bakoitzeko.

10. ZEHAPENAK

Zerrenda hau aurkeztu da:

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

Izendapena	DESKONTUA 5 egun natural bakoitzeko
Jabetzak eskatu zuen egikaritzeko baldintza bereziak bete ez izana zuzentzeko, baina obra-fasean ez zen eskakizun hori bete.	Adjudikazioaren prezioaren % 6
Eskainitako egikaritze-epea bi hilabete baino gehiago atzeratzea.	6.000,00 €
Eskainitako egikaritze-epea bi hilabetez atzeratzea.	4.000,00 €
Eskainitako egikaritze-epea hilabetez atzeratzea.	2.000,00 €

Hori guztia jakinarazten dizut, jakin dezazun eta ondorio egokiak izan ditzan.

Getxon, 2025eko irailaren 8an.

AZPIEGITURA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO
INGURUMEN UNITATEKO INGENIARI-BURUA

AZPIEGITURA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO
INGURUMEN UNITATEKO ARDURADUNA

AZPIEGITURA, OBRA ETA ZERBITZUEN ARLOKO ZINEGOTZIA.
INGURUMENA.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

I. ERANSKINA: PROIEKTUA

Dokumentua gehitu da, Kontratazio Kudeaketan aplikatzeko

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

II. ERANSKINA UDALAREN IRUDIAREN PROTOKOLOA

OBRAREN KARTELA

Udalaren eskuliburuarekin bat, baina protokolo honi egokituta, obretan erabili beharreko kartela hauxe izango da:

Getxoko Udalak sustatutako obra, baterako finantzaketarik edo laguntzarik, dirulaguntzarik eta abarrik gabe.



Getxoko Udalak sustatutako obra, baterako finantzaketa edo laguntzarekin, dirulaguntzarekin eta abarrekin.



OBRA-ITXITURAK.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

Udaleko teknikarien irizpideei jarraikiz eta aintzat hartuta inguruaren edo egin beharreko obren beharrak, honako obra-itxitura hauek jarriko dira:

- 2 m x 1 m-ko ixte- eta balizaje-elementu linealak, plastikozkoak eta hori-kolorekoak; udalaren anagrama izango dute errotulatuta. Arinak izango dira, 13 kg-koak, eta oinek kautxu beltzezko sendogarri malgua izango dute, eta tolesgarriak izango dira, 4 kg-koa bakoitza.



- 2,5 m x 1 m-ko ixte- eta balizaje-elementu linealak, metalezkoak, beroan galbanizatuak eta labean horiz margotuak; udalaren anagrama edukiko duen xafla bereizgarria izango dute. Markoa 35 mm x 1,5 mm-ko hodiarekin egituratuko da, eta 16 mm x 1,5 mm-ko barrote bertikalak izango dituzte.



- 2 m-ko altuerako ixte- eta balizaje-elementu lineala, mugikorra, 10 cm x 5 cm-

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

ko metalezko sare galbanizatuz osatutakoa. Sare hori metalezko hodiz osatuta egongo den eta hormigoizko oinak izango dituen bastidorearen gainean egongo da; elementu mugikor gisa erabili ahalko da aipatutako hormigoizko oinak jarriz, bai eta elementu finko gisa ere, zoruari ainguratutako hagaxken gainean jartzen bada. Udalaren anagrama plastifikatutako euskarrian egongo da, eta plastikozko bridekin lotuko da sarera.



Obren inguruetan partikulen proiekzioa murrizte aldera poliesterrezko sareak erabili behar badira, lehenetsiko da sare horiek zuriak izatea eta, bestela, berdeak; nolanahi ere, obraren arduradun den udaleko teknikariak ontzat eman beharko du sarea, eta Getxobiziren anagrama etzana izango du errotulatuta.

- Ixte- eta balizaje-elementu opaku eta linealak, xafla galbanizatuz osatutakoak, altzairu galbanizatuzko grekekin, EN 10244-2 arauaren arabera; 2,0 edo 2,5 m-ko luzera izango dute eta 40 mm-ko profila edo horren antzekoa. Euspen-paldoak: "S" paldoa, gidekin, 60x60 eta 60x40 mm, edo Omega motakoak, altzairu galbanizatuzkoak, EN 10244-2 arauaren arabera. Paldoa zoruan sartuz gero, luzera 2,35 metrokoa litzateke, edo 2,05 m-koa, ainguraketa-plakei soldatuz gero hura finkatzeko.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253344444uV2qKoiDV



LANEKO ARROPAK

Herritarrei irudi bakarra eta uniformea eskaintzeko, Getxoko Udalekoak ez diren enpresek bide publikoan obrak gauzatzen badituzte, laneko arropa jantziko dute. Erraz ikusteko modukoa izango da, hori kolorekoa. Udal-brigadetako langileek erabiltzen duten lan-arroparen berdina izango da, errotuluak izan ezik: ez dituzte udalaren bereizgarriak eta anagramak edukiko. Honako jantzi hauek izango dira:

- Mahuka luzeko poloa, erraz ikusten dena, horia eta banda bikoitz islatzailearekin, Cofra V111 SUN markakoa edo beste marka batekoa, ezaugarri eta estetika berdinak baditu.



Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

- Mahuka motzeko poloa, erraz ikusten dena, horia eta banda bikoitz islatzailearekin, Cofra V116-1 SPOTLIGHT markakoa edo beste marka batekoa, ezaugarri eta estetika berdinak baditu.



- Shoftshell haizetik babesteko jantzia/jaka, erraz ikusten dena, banda bikoitz islatzailearekin eta horia, Juba markakoa (HV9810 URAL modeloa) edo beste marka batekoa, ezaugarri eta estetika berdinak baditu.



Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

- Erraz ikusten den praka, horia, eta barnean banda bikoitz islatzailea daukana, Cofra V291 ENCKE markakoa edo beste marka batekoa, ezaugarri eta estetika berdinak baditu.



- Jaka, txano desmuntagarriarekin, erraz ikusten dena, banda bikoitz islatzailearekin, horia, Cofra markakoa (V077 GLITTER modeloa) edo beste marka batekoa, ezaugarri eta estetika berdinak baditu.



Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/33444 4uV2qKoiDV https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG2025334444uV2qKoiDV

- Prakak estaltzekoa, erraz ikusten dena, banda bikoitz islatzailea daukana, horia, Cofra markakoa (V076 REFLEX modeloa) edo beste marka batekoa, ezaugarri eta estetika berdinak baditu.
-



Estetikarekin eta irudiarekin zerikusirik ez duten lanerako gainerako jantziek, norbera babesteko ekipoek, eta banako zein taldeko babes-neurriek beteko dute laneko arriskuen prebentzioko eta laneko segurtasuneko gaietan indarrean dagoen araudian ezarritakoa.

Soilik estetikarekin zerikusirik ez duen material berria edukitzeko aukera dagoenean aurkeztuko zaio kontratuaren zuzendaritza teknikoari, onetsi dezan.

Udalekoa ez den enpresa adjudikaziodunak, lanak hasi baino lehen, erabili nahi dituen laneko arropak proposatuko ditu, ontzat eman ditzaten; hala, protokolo hau beteko da.

Sinatuta/ Firmado
UNAI POMPOSO BILBAO - 16070268F
2025.09.09 14:49:42 +02:00

Sinatuta/ Firmado
PEDRO MARIA SACRISTAN GONZALEZ - 14610645X
2025.09.10 19:47:59 +02:00
Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumen Arloko Arduraduna / Responsable del Area de Infraestructura, Obras y Servicios, Medio Ambiente

Sinatuta/ Firmado
JANIRE OCIO CELADA - 16058427B
2025.09.11 11:17:21 +02:00
Azpiegiturak, Obrak eta Zerbitzuak eta Udal Eraikinetako zinegotzia / Concejala de Infraestructuras, Obras y Servicios y Edificios Municipales